

HITZAURRE

Bizkaia berriz ere ankapean agertu da. Egon hala dago orain dala 30 urte, eta guk ba dakigu ; baiña itsu batzuk ez dute ikusi nahi. Eta hauentzat onuragarria izan da gure egoeraren egia agirian jartzzea „estado de excepción” deritzan horri esker. Bizkaia'n eta Bizkai'tik kanpora, batzuk esnatu egin dira. Familia askoren negarretan nork agintzen duen nabarmen ikusi da ; eta Bizkaia'n nor dagoen zapalduta ere bai. Garagarrillaren 19 dala-ta, hor ikusi ditugu, gure herriaren lotsagarri, gure izeneko traidore batzuk, domiñez eta golar-doez sariturik ! Loiez estal bitez beren izenak betirako.

Nor ziran gartzelara eramandako berrogei ta hamarrak, eta España'n zehar sakabanatutako ehunak ? Zertan ziran errudun gizon horiek bizkaitarren aurrean ? Ezertan ez ! Hain zuzen ere, gure herriarekiko burrukarengatik ziran ezagunak danak ; Bizkaia altxatzen eta bizkaitarren eskubideak defenditzen jardun diralako harra-patu dituzte. Horra hor egia.

Berriz ere, langilletasuna eta abertzaletasuna alkartuta ikusi ditugu. Eta ez guk bakarrik : España'ko erresumak batera jo ditu „abertzaleak” eta „sindikalistak”, „euskaltzaleak” eta „sozialistak”. Ez bat diralako ; baiña bai gaur bat daudelako. Etsaiek, berriz ere, hobe ezagutzen dituzte gure herri-gizonak guretako batzuk baiño.

Askotan esan dugu : gure ustez ez dago abertzaletasunik, gure herriari dagozkion eskubide *guziak* emateko xedea zinki hartu gabe ; eta herriaren eskubide hauetan nagusia, jakiña, herriak berak, argitasunean eta askatasunean, aberria zuzentzeko eskubidea da. Ez dago herriak aberria zuzentzerik kapitalismoan : kapitalismoak ez du errairik eta ez aberririk, ez baitu diru-irabaziaz beste jainkorik. Abertzaleak geralako gera sozialista.

Baiña sozialismoa Euskal Herrian ezin diteke izan euskalduna baik, España'n sozialismoa turkoa izan ezin ditekean bezelaxe. Sozialismoa jenezidioaren gain eraikitzerik ez dago. Gure herriaren nazio-tasuna eta nazio-izakera „ahaztu”-itxura egiten duten sasi-sozialistak, España'ko edo Frantzia'ko chauvinista porrokatuak dira. Euskal Herrian ez dago sozialismorik Euzkadi gabe. Zein „sozialismo” ren izenean eska diteke Gibraltar'en estatutoa España guziarentzako ? Horrelako ondoriotara eraman dezateken teoriak, besterik gabe, faltsutzat jo ditezke.

Euzkadi'ko marxista batzuk diotenez (eta gure ustez ez dira oso oker ari) gure nazio-nahia eta gure euskal giharra, marxista-gisa jokatzekotan, alde batera utzi behar dira. Beste batzuk, kondaira klase-burruka arazoa zaien ezker, majiña bat katramillatan barrena abiaturik ikusten ditugu euskal kausari buruz, eta korapilloa oso sarritan ezin askaturik. Askotan, Marx'en „ebanjelioak” salbatu nahirik, abertzale izan ziran batzuk, euskalduntasunari dagokionez txepelduta, eta politikaz Falanje'aren beraren iritziak defenditzen ikusten ditugu, eta españolismorik gordiñenean erabat murgildurik. Piskanaka, España'ko P.C.aren chauvinismo nardagarriaren alde ari

zaizkigu jo-ta-ke ; eta „A’ragoa”n dute edari bakarra. Baiñan „A’ragoa” (azentua ta guzti) eta Dolores Ibarruti zertan dira euskaldun eta zertan sozialista ? Nola izan ditezke horiek oraindik iñorentzako eredu gure herrian, ezpada Falanje’aren chauvinismoa oiñarritzat harturik ? „Sozialismo” hori, „científico” gaitzizena erabilliagatik ere, ez da betidaniko españar inperialismoa baizik. Axal gorriak ez du aldatzen pozoiñaren sustraia.

Sozialismoa eta marxismoa bi gauza dira. *BRANKA* huntan bertan ageri dan bezela, marxismoa ez da ez Egia, eta ez sendagai guzizko bat : puntu batzutan argi egin duen arren, ez nazioari buruz eta ez sozialismoari buruz ez da azken neurria. Ez gera 1867-an bizi. Marxista „ortodoxo”en kezka ez dira gureak. Ez dugu Bizkaia ankapean nahi. Nork esango digu baietz ?

BRANKA’k